

# EKONOMIALARIAK IZATEKO BIDEAN



**EIBAR-IRALE**

**R300**

**2018-2019 ikasturtea**

**Lehenengo txanda**

**Maidar Elduayen**

## AURKIBIDEA

<b>1. SARRERA .....</b>	<b>2</b>
<b>2. AURREZAGUTZAK .....</b>	<b>4</b>
<b>3. BERRIKUSKETA-ARIKETAK.....</b>	<b>4</b>
<b>4. ARIKETAK .....</b>	<b>6</b>
<b>5. JOLASA .....</b>	<b>10</b>
<b>6. ZUZENKETA-IRIZPIDEAK.....</b>	<b>11</b>
<b>7. ONDORIOAK .....</b>	<b>12</b>
<b>8. BIBLIOGRAFIA ETA WEBGRAFIA .....</b>	<b>14</b>

## ETXEKO EKONOMIA

### SARRERA

Ikasleei familia-ekonomiaz ezer azaldu aurretik, gogoko izaten dut gaiari buruz zer dakiten galdetzea. Esate baterako, *urtarrileko aldapa*, *iraileko aldapa* eta *ozta-ozta iritsiko gara hile bukaerara* esamoldeen inguruan hausnartzeko eskatzean, ez dakite nondik nora jo. Izan ere, ez dira etxeko ekonomia zer den ulertzeko gai.

Agian, etxean ez da etxeko ekonomiaz hitz egiten. Ikastetxean ere –ikasgai gisa ikasi arte behintzat– ez da behar den moduan lantzen, eta hala erakunde publikoek, nola enpresa pribatuek ez dute inongo erraztasunik ematen gaia hobeto uler dezagun. Beraz, guztiok dugu erantzukizuna arazoan.

Zergatik ez dute jorratzen gurasoek ekonomiaren gaia familiaren esparruan? Baliteke gurasoek pentsatzea seme-alabek horretan ez dutela erantzukizunik; ez dagokie horren ardurara, adin txikikoak baitira. Sarritan, *geure txikiak* babesteagatik edo, etxeko ekonomiaren egoera ezkutatzeko joera izaten dugu –egoera ona nahiz txarra izan–. Helduok ez dugu jakiten zer eta nola kontatu, gehiegi arduratuko ditugun beldurrez. Denbora falta ere bada beste arrazoietako bat: inoiz ez da une egokia, presaka bizi gara eta.

Hezkuntza-sistemari dagokionez, goian esan legez, ikastetxeek ere badute erantzukizuna. Egun, kompetentzietan oinarritutako hezkuntza dugu nagusi, eta oinarritzkoetan *Izaten ikasteko* eta *Ekimenerako eta ekiditeko espiriturako* kompetentziak aipatzen dira.

Ikasleak izaten eta ekimena erakusten trebatu nahi baditugu, horretarako tresna eta baliabide aproposak eskaini behar dizkiegu ezinbestean. Ezin aurrekontu bat egiteko eskatu, diru-sarrera eta gastuak zer diren aztertu gabe. Esaterako, etxeko ekonomia zer den azaltzeko, premiazkoa da aurretik hainbat kontzeptu azaltzea. Garrantzitsua da oso ikasleek Ekonomia erabilgarria dela ulertzea eta barneratzea. Egunero hartzen ditugun erabakiek, gehienetan, badute ekonomiarekin zerikusia.

Zenbait erakundek, Kontsumobidek eta Hezkuntza Sailak, esaterako, lehen pausoak eman dituzte ikasleei ekonomia ulertterazago egiteko bidean. Horrela, bada, gazteentzako ekonomia-ikastaro praktikoa batzuk dagoeneko martxan jarri dituzte –*Etxeko ekonomia* eta *Zerga Programa* izenekoak–; gutxi badira ere, bada zer bait. Kontsumitzaile garen neurrian, guztiok derrigorrezko dugu erakunde publiko eta enpresa pribatuekin harremanak izatea. Etxean edozein zerbitzu izateko, makina bat kontratu sinatu behar ditugu (kontu korrontearena, argindarrarena eta urarena,

besteak beste). Hain dira ulergaitzak ditxosozko kontratu horiek, ezen ez ditugun irakurri ere egiten. Sinatu eta kito! Beno, sinatu edo, sarean (linean) eta telefonoz ere izenpetu daitezke eta. Izena ematea guztiz errazten dute, baina bezero izateari utzi nahi diogunean *koplak* kontatzen dizkigute. Fakturak hieroglifikoak al dira? Ingurumena zaintzeagatik hobe paperean ezer ez jasotzea. Irakurtzen al ditugu faktura horiek sarean? Edo nahikoa daukagu banketxeko kontutik kobratu diguten gainbegiratzearekin?

Lan-kontratuei dagokienez, 16 urterekin posible da kontratu bat sinatzea guraso edo tutoreen baimena izanez gero. Beraz, 16 urteko gazte bat lan-merkatuan ari daiteke –legezkoa da–. Ba al du zentzurik lanerako eskubidea eta aukera izateak baina, aitzitik, etxeko ekonomia zer den ez ulertzeak?

Aurretik aipatutako guztiak kontuan hartuta, ikasleek etxeko ekonomiaz gutxieneko ezagutza izatea garrantzitsua dela ondoriozta daiteke. Gainera, ezagutza hori funtsezkoa da Ekonomia ikasgaia lantzen duten ikasleentzat. Egindako sekuentzia didaktiko honekin, ahal den neurrian, hutsune hori betetzea dut helburu. Nire ustez ezin baita etxea teilatutik eraikitzen hasi, zimendu sendorik gabe.

Adituek diotenez, gaur egungo gazteek arazoak dituzte etxeko ekonomia zer den ulertzeko eta barneratzeko. Egia da hezkuntza-sisteman Ekonomia ikasgaia gero eta gehiago lantzen dela eta, ondorioz, kontzeptu eta edukiak azaltzeko materiala egon badagoela. Baina elementu horiek eguneroko bizitzan eta norberaren familian duten eragina norainokoa den ikusaraztea ez da erraza.

Gizakiak beharrak ase behar ditu, baina zein dira lehen eta bigarren mailako beharrak? Nola asetzen ditugu? Nork bere lehentasunak ditu, eta horren arabera banatuko ditu diru-sarrerak.

Helduok, sarritan, arazoak izaten ditugu fakturak irakurri eta ulertzeko. Beraz, zer eska geniezaieke nerabeei? Funtsezkoa da etxean ditugun ekonomia-baliabideak mugatuak direla ulertzea. Aldiz, psikologikoki beharrek ez dute mugarik: *beti nahi dugu gehiago*. Etxera sartzen diren baliabideak, hortaz, efizienteki kudeatu behar ditugu, giza beharrei egoki erantzuteko. Izan ere, ez da komeni zorretan itotzerik: zentzuz jokatu behar dugu!

## SEKUENTZIA DIDAKTIKOA


### PIZTU AURREZAGUTZAK

Gaiarekin hasteko eta ikasleen arreta erakartzeko, galderak botatzen hasiko gara. Ikasleak binaka zein hiruak elkartuko dira.


1. Astero jasotzen duzu ordainsaria? Ondo administratzen duzula uste duzu? Saiatu [ariketa](#) egiten.
2. Aurrekontu bat zer den azaltzen jakingo zenuke?
3. Familia batek hilero dituen gastuen artean, batzuk aipatuko zenituzke?
4. Zer da gainzorpetzea? Zerk eragin dezake?
5. Zer dira diru-sarrerak? Nola eta nondik lortzen ditugu?
6. Ikusi EITBko [bideoa](#) eta aztertu ea bat zatozen esaten denarekin.

### BERRIKUSKETA

1. ATALA
  - 1.1. Osatu eskema.




1.2. Osatu eskema.



1.3. Osatu eskema.

Ekoizpen-faktoreak eta ekonomia-eragileak (erabaki-hartzaileak) zein diren jakinda, zer errenta lor dezake familia batek hilean? Arrazoituz eta bete eskema.



## ARIKETAK

1. Irakurri *Eroski Consumer* aldizkariko [“Etxeko ekonomia: hobekuntza apala”](#) izeneko artikulua, atera ideiak eta komentatu talde txikitan. Testua landu ondoren, debatea antolatuko dugu gelan.

2. Irakurri *Eroski Consumer* aldizkariko [“Familien gastuak % 20 egin du behera sei urtetan”](#) izeneko artikulua, atera ideiak eta komentatu talde txikitan. Testua landu ondoren, debatea antolatuko dugu gelan.

3. Aztertu eta azaldu zein motatakoak diren honako gastu hauek (kontuan izan gastuak finkoak, aldakorrak eta ezustekoak izan daitezkeela):

- elektrizitatearen faktura
- telefonoaren faktura (finkoa, sakelakoa...)
- aisialdia
- mediku-azterketak
- uraren faktura
- apetak (gozokiak...)
- oporrak
- erosketak (janaria, arropa, higiena eta garbitasuna)
- erkidego-gastuak
- etxeko konponketak
- gasaren faktura
- aseguruak (bizi-asegurua, etxearena, autoarena)
- ikastetxeak (hileko kuota eta matrikula)
- udal-zergak (OHZ, zirkulazioarena...)
- maileguak
- autoa (gasolina, matxurak...)

4. Gastuak aztertu eta gero, familia baten hileko diru-sarreraren eta gastuen [simulazioa](#) egingo duzu. Ondoren, nork bere etxeko simulazioa kalkulatu du.

5. [Ariketa honetan](#) ohiko eta ezohiko gastuak nahasian daude. Ohiko gastuak eta hileko diru-sarrerak kontuan hartuta, kalkula ezazu diru-sarreraren zer ehuneko (%) bideratu behar dugun ohiko gastuak ordaintzera.

6. Fakturak ulertzeko, eskola-orduan *Diruaren hotsa* blogeko [bideoa](#) elkarrekin ikusi, eta paperean dauden lbedrolako [faktura-eredu](#) batzuk aztertuko ditugu (urarena, argindarrarena, gasarena, telefonoarena eta abar).

7. Dagoeneko aztertu ditugu hilean ordaindu beharreko gastuak, eta gastu horien fakturak zertxobait ulertzeko gai gara. Beraz, iritsi zaigu teoria eta praktika uztartzeko momentoa.

Mesedez, hartu 4. ariketan egindako simulazioa, eta, ahal duzun neurrian, jaso idatzita etxeko datu errealak, gurasoei galdetuta. Zerk eman dizu arreta? Daturik igarri al duzu? Alde handirik al dago datu errealen eta zuk asmatutakoen artean? Hori guztia patxadaz aztertuko dugu. Familia-datuak isilpean gorde behar ditugu, baina idatzi atera dituzun ondorio nagusiak, eta saiatuko gara gelan, guztion artean, ideia orokor batzuk ondorioztatzen eta adosten.

8. Osatu taula.

### ETXEKO EKONOMIA

Esan baieztapen hauek egia ala gezurra diren. Hartu baieztapen bakoitzari dagokion letra, eta gako-hitz bat lortuko duzu; hitzak argituko dizu ariketa ondo ala gaizki egin duzun.

	Egia	Gezurra
1. Gastuak sarrerak baino handiagoak badira, balantze ekonomikoa positiboa da.	L	A
2. Ohiko gastuak beharrezkoak dira bizitza normalerako (hau da, oro har, beharrezkoak dira).	R	M
3. Normalean, ohiz kanpoko gastuak ohikoak baino askoz handiagoak izaten dira.	O	D
4. Etxebizitza beraren alokairua eta hipoteka ordaindu daitezke aldi berean.	H	U
5. Erkidegoaren edo komunitatearen gastua finkoa da.	R	J
6. Aurreztu ahal izateko, irabazten dena baino gutxiago gastatu behar da.	A	K
7. Zor bat ez ordaintzea dirua jasotzea bezalakoa da.	Z	U
8. Erraz aurreikusi ezin diren gastuak dira ohiz kanpoko gastuak.	G	E
9. Gastuak planifikatzea komeni da, familia edo pertsona baten egoera ekonomikoa kontrolatu ahal izateko.	A	N
10. Lau astean 30 € aurreztu nahi badituz, nahikoa da astean 6 € aurreztearekin.	T	S

GAKO-HITZA: ... .. TATU  
 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10




## 9 . Osatu taula.

### Etxeko ekonomiaren inguruko oinarrizko kontzeptu batzuk


Osatu esaldiak falta diren hitzekin. Erantzunak beheko aldean daude. Ondo egin duzun ikusteko, jarri azken zutabeen hitz bakoitzarekin batera dagoen letra. Irakurri goitik behera, eta berehala jakingo duzu erantzun guztiak zuzenak diren ala ez.

	Hitz hau falta da:	Gakoa
Lagun batek bankuaren oharra jaso du, nomina sartu diotela dioena. Lagun horrek ..... bat dauka.		
Lagun bat zinemara joan da eta sarrera bat erosi du. Lagun horrek ..... bat egin du.		
Bikotekideari gastuak zaintzeko esan dio, diru-sarrerak hilaren amaierara arte irauteko. Pertsona hori .....-z ari da.		
Diru-sarrerak gastuak baino handiagoak direnean, ekonomia-balantzeak ..... dauka.		
Pertsona batek ez dauka nahikoa diru ondasun bat (etxea) erosteko; bankuari eskatu dio dirua, eta erosten duen ondasuna jarri du bermetzat. .... baten bidez lortu du dirua.		
Astean 20 euroko paga du Juanek, baina 5 € gorde egiten ditu, urte amaieran bizikleta erosi nahi duelako. Hortaz, Juanek ..... egiten du.		
Dirua maileguan eskatu eta oraindik itzuli ez duen pertsona batek ..... du.		
Mariak dirua utzi dio Anari irristailuak erosteko. Horrenbestez, Mariak ..... egin dio Anari.		
gastu (K), hipoteka (O), saldo positiboa (N), aurreztu (M), familiaren balantze ekonomikoa (O), diru-sarrera (E), mailegua (A), zorra (I)		

10. Idatzi ikasi dituzun hiru edo lau gauza.




11. Idatzi ikasi ez duzun eta ikastea gustatuko litzaizukeen zerbait.



12. Hemen ikasitakoa gogoan izanda, azaldu zure dirua xahutzeko ohituretan egingo zenukeen aldaketaren bat.



13. Beste zerbait esan nahi izanez gero...



**14. Tabu jolasa**

Zenbait kontzeptu gogoratzeko, ikasleei Tabuan aritzea (debekatutako hitzen jolasa) proposatuko diegu.

Ikasleak lau taldetan banatuko dira eta txandaka jolastuko. Irakasleen rola betetzen duten ikasleek 12 txartel dituzte: letra larrietan asmatu beharreko hitza dator eta letra xeheetan hitza deskribatzeko esan ezin dituzten hiru hitzak. Txandako taldekide bati txartel bat emango zaio, eta taldekide hori saiatuko da gainerako taldekideei letra larrian idatzita dagoen hitza zein den azaltzen, debekatutako hitzak esan gabe. Taldeak asmatzen badu, bost puntu bereganatuko ditu. Ahal denik eta puntu gehien lortzea da helburua.

Azaldu ezazu:

**EKONOMIA**

Esan barik:

- gastuak
- diru-sarrerak
- kontrola

Azaldu ezazu:

**AURREKONTUA**

Esan barik:

- gastuak
- agiria
- prezioa

Azaldu ezazu:

**FAKTURA**

Esan barik:

- papera
- ordainketa
- prezioa

Azaldu ezazu:

**DIRU-SARRERA**

Esan barik:

- kobratu
- soldata
- dirua

Azaldu ezazu:

**GASTU FINKOA**

Esan barik:

- hilabetea
- dirua
- ordaindu

Azaldu ezazu:

**EZUSTEKO GASTUAK**

Esan barik:

- matxura
- ezustean
- ustekabekoa

Azaldu ezazu:

**MAILEGUA**

Esan barik:

- eskatu
- banketxea
- nomina

Azaldu ezazu:

**GASTU ALDAKORRA**

Esan barik:

- aldatu
- gutxi-gorabehera
- hilabetea

Azaldu ezazu:

**AURREZTU**

Esan barik:

- itsulapikoa
- gastatu
- erosi

Azaldu ezazu:

**ZENBAKI GORRIAK**

Esan barik:

- kontu korrontea
- dirua
- banketxea

Azaldu ezazu:

**HIPOTEKA**

Esan barik:

- etxebizitza
- banketxea
- hilabetea

Azaldu ezazu:

**DIRUA**

Esan barik:

- billeteak
- txanponak
- ordaindu

## ZUZENKETA-IRIZPIDEAK

ETXEKO EKONOMIA - EBALUAZIOA									
	Ebaluazio-irizpideak	Oinarrizko gaitasunak							
		1	2	3	4	5	6	7	8
1. Etxeko ekonomiako oinarrizko kontzeptuak definitzea eta bereiztea; kasurako, gastua, sarrera eta balantzea.	Erantzunak zuzenak dira. Erantzunen bat ez bada zuzena izan, zuzendu egin du.		x		x	x			x
2. Ohiko gastuak eta ezohiko gastuak bereiztea.	Aukeraketa zuzena izan da. Datuak ongi interpretatu ditu.		x		x	x			x
3. Balantzearen eta saldoaren kontzeptuak sarrerekin, gastuekin eta lehendik erabilgarri zegoen diruarekin erlazionatzea.	Erantzunak zuzenak dira. Beharrezkoa denean, ondo justifikatu dira. Idazkera eta gramatika zuzenak dira.		x		x	x			x
4. Aurrekontu baten zatiak identifikatzea eta bereiztea, eta hura kudeatzeko nahiz aurrezteko erantzukizuna sustatzea.	Atalak ondo bereizi ditu. Kontzeptuak argi azaldu ditu.		x		x				x
5. Baliabideak aurrekontuaren eta beharizanen arabera administratzea.	Ondo administratzea lortu du.		x		x				x
6. Arduraz kudeatzea gastu pertsonalak (paga) eta etxeko ekonomiaren oinarrizko elementuak.	Behar bezala bereizten ditu datuak eta galderak. Datuak zuzen idazten ditu. Egin beharreko eragiketak identifikatzen ditu. Kalkuluak ongi egiten ditu. Erantzutean, unitatea adierazten du. Kalkulu-orriak eskatutako baldintzak betetzen ditu.			x		x	x		x
7. Norberaren ikasketaz arduratzea, lortutakoa ebaluatuz, eta nork bere lanak era sistematikoan jasotzea eta ebaluatzea.	Galdetegiari behar bezala erantzun dio. Egin diren hausnarketak interesgarriak dira. Ohiturak hobetzeko asmoa ikusten da. Txostenean informazio egokia jasotzen da. Txostena ondo antolatu da. Gaitasun bakoitzeko, gutxienez, produktu edo agerpen bat dago. Ekarpen pertsonalen bat dago. Aurkezpena sortzailea eta berritzailea da.							x	x

**Oinarrizko gaitasunak:** 1. Hizkuntza-gaitasuna, 2. Matematikarako gaitasuna, 3. Zientzia eta teknologiarako gaitasuna, 4. Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna, 5. Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna, 6. Giza eta arte-kulturarako gaitasuna, 7. Ikasten ikasteko gaitasuna, 8. Autonomia eta ekimen pertsonala.

## ONDORIOAK

Sekuentzia didaktikoa martxan jartzeko prest dago. Hiru atal nagusi ditu: aurretiko ezagutzak piztea, berrikusketak eta ariketak. Atal horiek lanean ari garen bitartean egokitu eta birmolda daitezke.

Gaia erakargarri egiteko, aurretiko ezagutzen atalean galdera sorta txiki bat dago, non bideoa eta ariketa praktikoa txertaturik dauden. Ikasleek, binaka zein hirunaka elkartuta, bat-batean erantzungo diete galderei. Ariketa praktikoa, berriz, banakako lana izango da. Erantzunak irakurri, eta guztion artean, talde handian, laburpena adosten saiatuko gara.

Bigarren atalean, berrikusketan, irudi-eskemak osatuko dituzte aurretik landutako zenbait kontzeptu birpasatzeko (eskemak banaka beteko dituzte). Kontzeptuen arteko loturek argi egon behar dute sekuentzian aurrera egiteko.

Hirugarren atalean, ariketenean, ikasleentzat berriak diren kontzeptuak lantzen dira. Consumer aldizkariak argitaratutako bi artikulu irakurriko dituzte eta gaur egungo egoeraren berri jasoko dute. Ulertzen ez dituzten hitzak, derrigorrez, azpimarratuko dituzte eta landu: gastuak (finkoak, aldakorrak...), diru-sarrerak, soldatak, fakturak eta abar.

Definizioen bidez azalduko dugu teoria. Behin teoria azalduta, ariketen bitartez salto egingo dugu praktikara; ariketa gehienek errealitatea simulatzen dute. Aurreko urteetan gertatutakoa kontuan izanda, esan beharra dago ikasleek asmatutako datuen eta benetako datuen arteko aldea nabarmena izaten dela gehienetan. Alde horretaz jabetzen diren mementoan, hain zuzen, ohartzen dira ikasleak etxeko ekonomiaren garrantziaz. Oso deigarriak egiten zaizkie datuak; halaber, interesgarriak. Hortaz, oso une aproposa dugu hausnartzeko.

Fakturak eta kontratuak ulertzeko, bideo eta webgune konkretuak erabiliko ditugu. Fakturak ez ditugu oso sakon landuko; izan ere, gutxieneko kontzeptu garrantzitsuenak ulertzea eta kokatzea da helburua. Helduok ere ez ditugu fakturan azaltzen diren kontzeptu guztiak ulertzen; beraz, ez diegu ikasleei gehiegi eskatuko.

Sekuentzian azaldutako kontzeptu esanguratsuenak birpasatzeko, Tabu jolasean arituko dira. Jolasa erabiliko da ikasleei ikasteak jolasteko aukera ere ahalbidetzen duela erakusteko.

Amaierako atalean, egindako sekuentziari buruzko balorazioa egiteko eskatuko zaie galderen bitartez. Ziurrenik, ikasleek emandako erantzunetatik ideia interesgarri ugari jasoko dugu; izan ere, gazteen ikuspuntua kontuan hartu beharrekoa da, jarduera haien bitartez. Erantzunen arabera moldatuko dugu sekuentzia, hurrengo ikasturterako erabilgarriagoa izan dadin.

Sekuentzia didaktikoa prestatzeko orduan, nahiko argi izan ditut buruan lanaren atalak, baina ez ariketa motak eta haien kopurua. Sarean, ariketak prestatzeko informazio eta baliabide ugari dago. Hala ere, helburuak betetzeko materiala antolatu eta egokitu behar izan dut eta, horrenbestez, uste dut material erabilgarria sortu dudala.

Hasiera batean zeharo galduta ibili arren, proiektuak aurrera egin ahala ideiak argitu zaizkit. Sekuentzia pausoz pauso jarraitu daiteke edo, nahi izanez gero, atal bakoitzeko ariketa bakan batzuk aukeratu. Irakasleak ikusiko du zenbat denbora erabili eta zer egin helburuak lortzeko.

Sekuentzia osoa eginda, esango nuke ikasleak familia-ekonomia zer den azaltzeko gai izango direla eta arlo horretan arduratsu jokatzeko behar dituzten ezagutzak barneratuta izango dituztela.

Sekuentzia didaktikoa prestatzen aritu naizen bitartean, ikasleak ez ezik irakasleak ere kontuan izan ditut. Badakigu errealitatea arras konplexua dela. Eguneroko bizimoduan gertatzen zaizkigun egoerak aintzat hartuta, adibide bidez, hartzen ditugun ekonomia-erabakien zergatia ulerterraz egiten saiatu naiz. Sortutako materiala sinplea izan arren, baliagarria eta erabilgarria da; horregatik, esango nuke edozein irakasle jar dezakeela praktikan.

Hasierako asmoak betetzeko ilusioa badut. Helburuak lortu ote diren ikasleen balorazio-erantzunak irakurri ondoren ondorioztatuko dut. Hortaz, proiektua ikasgelan martxan jartzeko irrikan nago.

## BIBLIOGRAFIA

PEÑALONGA, Anxo: *Ekonomia DBH 4*, Mc Graw Hill, Madril, 2016 (euskaratzaileak, Miren Garate, Ramon Eiguren eta Ramon Iriarte).

## WEBGRAFIA

ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA: *Energiaz argitu* [linean]. EITB, 2017 [kontsulta-data: 2018-10-25]. Erabilgarri, hemen:

[https://euskalpmdeushd-vh.akamaihd.net/multimediahd/videos/2017/03/24/2120059/20170324\\_19590113\\_0009826561\\_004\\_001\\_ARGINDARRARE.mp4](https://euskalpmdeushd-vh.akamaihd.net/multimediahd/videos/2017/03/24/2120059/20170324_19590113_0009826561_004_001_ARGINDARRARE.mp4)

EITB: *Gazteek zailtasuna dute etxeko ekonomia ulertzeko* [linean]. EITB, 2014 [kontsulta-data: 2018-10-15]. Erabilgarri, hemen: <https://youtu.be/lqmsSbH2aqk>

EROSKI CONSUMER: *Etxeko ekonomia: hobekuntza apala* [linean]. Consumer Aldizkaria, 2017 [kontsulta-data: 2018-10-08]. Erabilgarri, hemen:

<http://revista.consumer.es/web/eu/20171001/pdf/tema-de-portada.pdf>

EROSKI CONSUMER: *Familien gastuak %20 egin du behera sei urtetan* [linean]. Consumer Aldizkaria, 2017 [kontsulta-data: 2018-10-11]. Erabilgarri, hemen:

<http://revista.consumer.es/web/eu/20140301/pdf/tema-de-portada.pdf>

IBERDROLA S.A.U. : *Argindarraren faktura* [linean]. Iberdrola, 2018 [kontsulta-data: 2018-10-08]. Erabilgarri, hemen:

<https://www.iberdrola.es/eu/negozioetako/informazioa/faktura/elektrizitate-faktura>

IRAKASLE TUNANTEA: *Aurrekontua egiteko txantiloia* [linean]. Diruaren hotsa bloga, 2018 [kontsulta-data: 2018-10-08]. Erabilgarri, hemen:

<https://diruarenhotsa.blogspot.com/2018/04/aurrekontua-egiteko-txantiloia.html>

IRAKASLE TUNANTEA: *Elektrizitatearen faktura ulertzeko beste bi bideo* [linean]. Diruaren hotsa bloga, 2018 [kontsulta-data: 2018-10-11]. Erabilgarri, hemen:

<https://diruarenhotsa.blogspot.com/search/label/Fakturak%20ulertu>

PIZTU TOLOSALDEA: *Nola irakurri zure faktura elektrikoa?* [linean]. 2017 [kontsulta-data: 2018-10-18]. Erabilgarri, hemen: <https://youtu.be/X5AOVHGXdIs>